

Sarrera:

3T, 4S mugikorretan oinarrituko den enpresa bat da eta Bigarren Batxilergoko 5 ikasleok osatzen dugu talde hau. Eguzki plakak daramatzen mugikor bat sortzea oso ideia originala iruditu zitzaigunez, ikasleok bildu eta enpresaren plangintza eta antolakuntzari ekin genion. 2018ko urte amaieran egin genuen enpresaren zirriborroa, hau da, gutxi gora behera zer ezaugarri izango dituen: tamaina, zenbat langile, produktuaren prezioa, gutxi gora behera zenbat enpresei eskainiko geniokeen geure produktua... Behin ideia horiek ondo finkatuta, enpresa sortu genuen. Sozietate anonimo bat da gure enpresa. 3T SA, hain zuzen ere.

2019ko martxoaren 17an estreinatu genuen lehenengo aldiz 3T enpresa, mugikorrak ekoizten dituen makinak martxan jarritz. Egia esan, orduetik etengabe ekoiztu ditugula mugikor hauek eta enpresaren mozkinak gero eta handiagoak direla. Geure benetako helburua 3T enpresak ekoizten dituen produktuak mundu guztian ezagunak izatea da, hots, enpresa multinazionala bilakatzea.